

AZKEN SOLASA

Ibilaldi luze honetan zehar oñatiar, beste herrietako arantzazuzale, eliz jende eta bertako frantziskotarren XX. mendeko biziera erlijiosoari eman diogu begiratu bat. Denak ere Santutegi horretara inguratzen ikusi ditugu. Ia guztiak euskal herritarrak ziren, batzuk erbesteetatik zetozenak.

Talde eta klase sozial ezberdinak nahasita agertu dira Arantzazura, elkarren ondoan eta elkarrekin; batzuetan ogibide eta zorion-zoritxar berekoak batera, inoiz edo bestetan berariazko taldeetan: arrantzaleak, meatzariak, medikuak, agintariak... Sarrienik otoitzera etorri ohi ziren, baina inoiz baita lanera ere, sute bakoitzaren ondoren: itzainak, arotzak, harginak, zamariak... Eta ez dira falta izan handikiak (Errege, Jaun, Gotzain, politikari...), eta sona zabalekoak (Garibai, Unamuno...).

Taldean eta bakarka iritsi dira, penitentzia eginez, festa giroan, bizitzako zamak nekatuta, edo bat-bateko osasun ederrak indarberriturik. Betiko kristau zintzoen ondoan, azaldu da bihotz-berritu berririk ere, San Ignazio adibidez.

Ia beti ibilera kodetua izan du Arantzazu-Bideak, tradizio, usadio eta arauak neurtutakoa. Erromes eta erromesaldiek beren gidariak izan dituzte, legendetako "uso mandatariaekin" hasi eta igoaldi handietako bozgorailu hura tarteko. Sakratua izan da erromesaren bidea, tarteka-marteka bere kaperatxoekin, han edo hemen Andre Mariaren mirari edo egonaldiren baten oroigarria lekuko zela, errezoan.

Atergabeko emana izan da peregrinazioarena, XV. mendetik hasi eta gure garaiak artekoa. Hala ere, XV. mendeko igoaldi haiek eta XX.ekoek izan dute beren artean alderik franko: erromesen pentsamoldean, bideko baliabideetan, otoitz-eratan, bere inkulturazio-modu osoan.

Fedez ere ez dira izan berdinak Arantzazuko erromesak: batzuek, sinesmen hori gainezka zutelako zetozen; besteak, ostera, berorren ahuldadea indartu nahirik; batzuetan, pozaren bila, eta bestetan, ezbeharrak gainetik nola kenduko. Dena den, Santutegirako bidaia ez da izan beti eta bakarrik gertakari "sakratua", fededuna nahiz sinestuna izan; bestelakorik ere izan du, eta maizenik sakratutasunetik eta profautasunetik, bietatik batera, bitasun horretan erromesaren bihotz erdi-bitua ispilatuz.

Arantzazu Euskal Herriko Santutegia izan da, eta halaxe ageri zaigu iraganean orokorki eta berezikiago historiako hainbat aldi eta unetan; izan ditugun Santutegietan beharbada Euskal Herriko osokoena izan da hau: denboran zehar frogatu duen iraupenagatik, gizartean besarkatu dituen maila ezberdinen aldetik, erakutsi dituen inkulturazio-moldeengatik eta irabazi eta indarrean izan dituen lurraldetasunengatik.

Hori dena ikusita, liburuko idazlanen amaian behin baino gehiagotan agertu da etorkizunaz ere itaunik: Ondoko hamarkadetan, zer itxaron dezakegu Santutegitik? Nahiko litzatekeen geroa segurtatzeko premiazko hiru alde nagusi aipatu dira Mendeurrenekoan: erlijiotasuna, kultura eta izadia.

Erljiotasuna

Adiera zabalean har daiteke hau hemen: ez da fedea bakarrik, Misterioa posibletzat daukan nornahi aipatu beharko da. Lur planeta txiki hau “Mundu” kontrajarrietan banatua deskribatu ohi da: “Lehenengo Mundua” aberatsa, Ekonomia, Politika eta Aurrerapen Teknologikoen jabea, eta beste muturrean, “Hirugarren Mundua”, menpean hartua, etorkizuna ere lapurtu zaiona.

Erljiotasunera gatozela, ordea, bestelako banaketa ere badu Gizadiak, hau da, Beste Munduarekiko izan dezakegun begiratuan Kosmo-Antropologiak nor bakoitza alde batean edo bestean jartzen du. Beste Munduarekiko sinesgabe, sinesgaitz edo sinestunok elkarrekin bizi gara, baina geure buruak, munduak eta jainkoak ezberdinki pentsatu, atzeman edo asmatuz. Jarrera nabartu guztien arteko muga-marra erabakigarriena, ordea, Azken Misterioari aurrez so egitean edo sorbalda ematean datza. Horrela, batzuek eta besteak kontrajarrita gaude, ez derrigorrez elkarri erasotzeko (historian sarri gertatu denaren antzera), baina bai geure gizatasuna molde batean ala bestean ulertuz.

Erljiotasunari dagokion honetan, Arantzazuk -Santutegietan ohi izan den moduan, eta bere historia luzatu-gaurkotuz- Misterioarekiko irekitasun-bideak erakutsi liezazkieke fededun katoliko-kristauei, noski, baina era bertsuan elizagabeei, Misteriorako bidea utzita dutenei, agnostiko bilatzaileei, “harago” joateko hurbildu nahi duen nornahiri. Nola ez die, bada, Arantzazuk bere ongi etorria emango hain mai-teak dituen “San Ignazio”, “Jorge Oteiza” edo “Luzio Muñoz” guztiei? Ongi etorria eman, eta bere baitan hartu itaun bat bera ahoskera eta tonu ezberdinez dagien oro.

Aspaldidanik, euskal herritarraren alde erlijiosoak (euskal *homo religiosus* horrek) sinesmenezko nahiz fedezko bere bizipenak izan ditu, bere barru isilean, eta berdin bere inguru sozialean ere (Barandiaran *dixit*). Gero, kristautasunak euskal gizartea ez zuen bat-batean bere erakunde eta elkarteetan sareztatu. Aitzitik, kristautzea bera oso mantso egin zen, eta ordutik ere Mendebaldeko kristau erakundeek pixkaka sustraitu zitzaizkigun hemen. Ia beti agintarien ekimenez sortutakoak izan dira: monasterioak, parrokiak, komentuak, elizbarrutiak berak, eliz elkarteak... Herritarren ekimenez, berriz, elizak, ermitak eta santutegiak ere gertatu ziren. Berorien artean egon da Arantzazukoa ere.

Gerora, Santutegi honen arrakasta sozio-erlijioso-kulturala Fraide-Ordena frantziskotarrari atxikita ageri zaigu, hain zuzen Erregimen Zaharrea gure artean Komentu eta erlijioso gehien izan zuen Institutu Erljiosoari. Horrek Aro Garaikidean segida izan du, antzaldatuta noski, liburuan ikusi dugunez. Santutegiko Ordena zaintzailearen hau, baldintza mugatzailea izan zitekeena (azken buruan, Ordena bakarra gainerakoekin lehian), indar errotzailerik gertatu zen gurean eta, aldi berean, arrakastan gora zetorren ikusmolde kristau jakin baten ispilu. Euskal herritasuna eta frantziskotartasuna ongi elkar-txertatu dira Arantzazun, Santutegiko Aldare Nagusian garai batez bertako Andre Maria eta San Frantzisko batera jarri ziren bezala. Ordena Erljioso handi guztiek izan dute inkulturazioan honen antzeko Santutegietako “estrategiarik”, baina kasu honetan arra-

kasta onarekin gertatu zen hori. Hein handi batean, asmatu egin zen, nonbait, euskal erromantzeek ere erakusten digutenaren arabera.

Elkarrizketa da edozein Santutegiren funtsa, mezuaren, mezulariaren eta sinesunaren arteko solasa alegia. Santutegietan mezua “agertu” egiten da, gero landu, behar denaren arabera nabartu eta herritarren “sinesmen-historietan” landatu. Tartean daude, noski, bitartekari eta mezulariak: aurkikuntzako artzainak, tokiko ermitauak, santutegi-zaintzaileak, historialariak, kontalariak, poetak, herriko fededunak, Misterioak bereziki hunkitu dituenak... Mezua hedatu eta herritarren artean erantzuna jaiotzen den arteko elkarrizketa da Santutegiarena, beharbada sinesiz eta ekinez Misterio-itaunari ihardesteko.

XXI. mendeko sekulartasun jaio berrian, guztia dago berrikusteko: mezua, mezulariak, herritarrak. *Mezua* lehenengo, Arantzazun ere bere jatorrizko ahots boteretsua behehitu ere egin delako eta gaurko herritarren gogoetaraino iristeko zorroztasuna galduta ageri zaigulako: jada, agerkunde ez da “Agerkunde”, eta Irudiaren garai bateko “mirariak” orain ez ditugu ikusten.

Mezulariak, bigarren. Aldakuntzarik franko izan da berauen artean: fraideak, esate baterako, pulpitueta gutxiago dabilta, baina talde txikietan eta Irrati eta Telebistetan entzun-ikusten ditugu; tresneria berrituak dituzte eskuetan orain, Iurretan, Seguran edo Donostiako Miramón-en. Hala ere, lanabes berrien azalpetik nahitaezkoa gertatuko da mezu-mamia bera ere sekulartasunaren barnean birpentsatzea, eta horrek mezulariaren gaitasun berriak eskatzen ditu, konplizitate zail eta arriskatuak. Dena den, kleroarena ez ezik herritar xumearena ere bada sinesmen-mezulari lana, Misterioa jaso eta zabaltzeko, Elizaren barruan/tik nahiz kanpoan/tik.

Herritarrak: fededun soilak, edo gizon-emakume titulu erlijiosorik gabeak. Orain garai gutxitik, oso aldatu gara herritarrok: joan zen pikutara sasoi bateko Kristandadea, eta Misterioarekikoa libertatean bizi daiteke, edo baztertu. Askatasun horretan, erlijiotasun-molde zaharrak ez du sarritan fededuna asetzen, edo, anitzek, eliz aterpe jakinik gabe bizi du, edo ez du, erlijiotasuna. Hala ere, hainbat herritar -Misterioaren erromes kezkatu- bere bidea urratuz dator. Misterioaren egarri diren guztiok bila dabilta bitartean, Santutegiek indarrean izan dezakete beren betekizun klasikoa, betiko *homo religiosus* horri “lekua” eskainiz.

Aniztasun horri guztiari begiratu, ez ote du izan behar Arantzazuk, fededunentzat Andre Mariaren Santutegi den aldi berean, *a priori* definizio gehiago gabeko Misterioaren Santutegi ere? Bego galdera bere horretan.

Kultura

Erlijiotasun soila ez, baizik eta erlijiotasun inkulturatua bizi izan da Arantzazun, aurreko mendeetan eta gaur arte, maila ezberdinetan kultureztatua, sasoi sasoi eskeari erantzuten ahalegindua. Alde horretatik esperientzia aberatsa, aldakorra, behin baino gehiagotan testuinguru ezberdinetan birjaio eta garatua.

Katolikotasunak eta euskal herritasunak ezarritako baldintza orokorren gain, beste oinarrizko bi faktorek sustatu du inkulturatze-prozesu hau: herritarren kultur ekarpenek eta bertako frantziskotarren tradizioak. Eta gero, bion arteko sinbiosiak, noski. Arantzazu-Bidea izan da batez ere herriarena (bidearen presta-

kuntza, otoitz, kantu eta bertsoen bilduma, esaterako), eta Santutegia, ostera, frantziskotarrek bertatik bertarago zaindu dutena.

Eta herri-herri mailako kulturarekin batera, Santutegiak bere kultura jaso landu du; batzuetan fraideak berak izan dira sortzaileak; bestetan, kanpoko lankideak bilatu izan dituzte, XVI-XVII. mendeetan bezala bukatu berri den XX.ean. Guztiaren balantze orokorra egiten hasi gabe, aipa litezke, behintzat, kultur eremu edo ekimen batzuk:

- idazketaren mundua: historiak, legendak, sermoiak, teologia, filosofia...
- musika-mundua: musikagile, zuzendari, kantari, tresna-jole eta abarrekin.
- zientzien alorra: natur zientziak, botika, etab.
- teknika-artistautza: organogileak, liburugileak, etab.
- artegintza: arkitektura, eskultura, margolaritza, liturgi osagarriak.
- kultur antolamendua: ikastegiak, musika-artxibategia, liburutegia.

Zoritzarreko suteek parte handi bat eramane ez balute, Arantzazun gaur kultur ondare historiko askoz ederragoa izango genuen oraindik; baina behin eta berriz birsortu beharrak bere alde onak izan ditu, ondarea eguneratuz joan baitira Santutegiko fraide zaintzaileak, eta hauekin batera herritarrak ere.

Ahalegin historiko eta gaurko honetan azpimarratzekoa da, gainera, herri eta hirietatik urrun garatu dela hori dena, herri-gizarteak, biak, haraino joaten saiatu direlako batetik, eta bertako erlijioso bizilagunek zerbait jaso, eta handikiro erai-kia, egin nahi izan dutelako. Herritarren peregrinazioarekin batera, frantziskotarren egonkortasun sortzailea erabakigarria gertatu da Arantzazun. Fraideartearen estatistika altuek eta horren ondoriozko emaitzek erakusten dute hori.

Ondare horren gain eta segidan, XX. mendean kultur proposamen berriak *jaso* eta *egin* ditu Arantzazuk, lehendik ezagunak zituen alorretan, kanpotik biltzeko gaitasun hori erne-bizkortuz (Oteiza eta ingurura bildutako artistak dira adibide nabarmenena) eta bere baitatik ekimen-molde berriak elikatuz (abesbatza, argitalpenak, ikastetxeak, idazlegoa, etab.).

Berehalako proiektuetan ere, etorkizunean *kultur topagunetasun* hori bizirik amestu nahiko luke batek, deituta edo deitu gabe datorrenari harrera eginez, noski, eta ahal delarik, datozkeen Arantzazuko bizilagun berriek ere berriazko kultur proposamenak sortu eta eskainiz.

Natura, Izadia

Hona hirugarren aukera gehigarria, bertan dagoena. Liburu honetan, Azurmendik "parajea" aipatzen du, historialari zaharrengan bortitza eta hezikaitza zen natura, fraideei berei eta frantziskotar batzuei ere behin eta berriz atzera eragin ziena.

Frantziskotarren artean Izadiaren mina bizia izan da ia beti, eta bi balio bederen izan ditu horrek: gizakiarekin batera, Izadia Jainkoaren gure arteko aurpegi maitagarria zen, eta, bestalde, Jainko horren bilatzean otoitz-bakardade emankorra eskaini zezakeena, gainera. Badirudi historikoki Arantzazun aintzakotzat hartu izan zela bigarren balio hau, baina modu berezian, bertako Fraideartea erlatiboki handia izan baitzen beti, hiri Komentuetakoak baino handiagoa izateraino.

Euskal frantziskotartasunaren Arantzazuko Izadi-esperientzia honek parada berriak bizi ditu orain, Ordenako iturrien ezagumendu berrituak Izadiarekiko sen-

tiberatasuna are argiagotu duelako, bat, eta bi, gaurko sentiera ekologikoak ere bide berera daramatzalako.

Arantzazuko hainbat fraidek biziki maite izan du inguruko mendietan ibilaldiak egitea. Adibiderik behar balitz, horra hiruzpalau jarraibide, fraide ezagunenak: J. A. Lizarralde eta J. I. Lasak egin dute, hein batean, gaurko Urbia; Villasante ibiltari porrokatua zen, horretarako bere egun eta orduekin; Gandiagak milaka zuhaitz landatu zituen, eta arkeologia ere egitean iragan zaharra eta gaurko zokoguneak batu. Zabalak, Arantzazu inguruetako Izadiaren taupadaren albisteak ematen dizkigu egunero.

Eta Arantzazura "Izadi-erromesak" datoz aldapa gora, gazteak, adinekoak, hiri, herri eta herrixketatik. Eta bertan, artzain-eskola osagarria ere jaio da, ostera ere Izadiaren parte izateko, ardi eta moxalak mendietan, esne eta gazta hirietara doala, pagoak, pinuak, lizarrak berde guritan direla.

Aizkorriko Parke Naturala eratuko denerako, Arantzazun dago Izadi handi horretarako aparteko ataria, Arantzazu-Bidean gora herrietatik datorrenari harre-ra on egin eta Natura garbiaren dohaintza eskaintzeko.

Erlijiotasuna, Natura eta Kultura izan bitez, bada, etorkizunean ere, Santutegi honen aurpegi anitza, gizarte anitz bati begira.

Joseba Intxausti

Donostia, 2003ko maiatza